

XIII. urtea - 147. zk. 2005eko martxoa

> **GEU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

geurekin mendira. 10 urte &
alberto iñurrategi. gure himalaya

unai yus
aurrera. neskak
aberri eguna 1934
korrika

Dalvez

argitarazleak

liburuak aldizkariak afixak katalogoak



diaz de olano kalea, 22 -behea
telefonoa: 652 77 65 09
faksa: 945 24 52 69
info@dalvez.com

www.dalvez.com



HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA


2005eko harpidetza kuota (18 euro)
martxoaren bukaera eta apirilaren hasiera
artean pasako zaizue. mila esker.

GEU Elkartaren ekimenez
sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:
Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz
Tfnoa. eta Faxa:
945 22 21 53
e-mail:
geugaste@grn.es

Zuzendaria:
estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:
josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak:
josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak:
edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:
estitxu breñas glz. de zarate, david alvez
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:
estitxu breñas glz. de zarate
Itzulpenak:
edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri
Maketa:
patirke sanz eta david alvez
logoa:
io grafix
komikia:
iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:
ruben sanchez, txabi arnal, maite lekue,
erlantz urtasun, alfredo ibarra eta diocesan-
mendizorrotzak ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa:
edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila:
edurne begiristain, estitxu breñas glz. de
zarate eta maite lekue
Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



GEU ALDIZKARIA zure
etxean jasotzeko bidea
HARPIDETZA da.
Urte osoko kuota: 18 euro.
(telefonoz - e-mailez)

AHORIK-AHO



7-10

alberto iñurrategi,
gure himalaya
& geurekin mendira,
10 urte



11

euskaltasunean lagun:
christina von bremen

GAIKA



14-15

aurrera emakumezkoen
futbol taldea

16-17

aberri eguna 1934
Gasteiz liburua



18-19

korrika 14

20-21

idazle
gazteak

12-13

unai yus
txirrindularia



22

europar konstituzioa & euskara

23

arabako bertsolari txapelketa 05



Arabako
Bertsolari
Txapelketa
2005

HAN-HEMENKA

- iritzia (4-5)

ruben sanchez

- kaleak dio (6)

jarrai-haika-segiren # sumarioa

- idazleen zutabea (6)

txabi arnal

KULTURAI SAILDIARI SO

- AGENDA (25)

- HISTORIA ZERTZELADAK (26-27)

1876. erlantz urtasun

- ARTE TXOKOA (28-29)

musika: dj nuñez / iñaki arregi

- BIDAIA (30)

"mundua gerturatuz"

- ERREZETA (30)

krema frijitu arrunta

- ARABA BIXOTZIAN (31)

alfredo ibarra

- BERTAKOARI SO! (31)

erlantz urtasun

- GEUrekin mendira 10 urte (32-33)


- GEU elkarte (34)

- KOMIKIA: tink (35)

iñigo sarasola

Azala ...

GEUrekin Mendira taldearen 10. Urteurreneko
ospakizuna dela eta, apirilaren 8an gasteizen
izango da Alberto Iñurrategi puntako
mendizale euskalduna eta internacionala.



argazkia: © 'hire himalaya'

Gatazka kaleetatik atera...

➤ Ruben Sanchez, bertsolaria



Arabarrak, naparrak,
lapurtarrak, bizkaitarrak,
xiberutarrak eta
gipuzkoarrak gara. Ez
gara Ibarretxeren 'la
sociedad vasca'

Artikulu hau irakurtzen duten askok, gure artean 11 aldiz errepikatutako gauzez hornitzen dela nabarituko dute. Zaharrak berri guretzat.

Artikuluak 'besteengan' eragin nahi du ezkertiarra eta abertzalea sentitzen den batengandik. Jakina, erantzun nahi baduzu(e), gustura irakurriko dut.

Bortizkeria edo indarkeria da artikuluaren gaia, nahi duzuen bezala. Gaur egun, gehienok bat gatoz esatean gure herriko gatazkaren muina politikoa dela, eta horrek indarkeriazko ondorioak dakartzala, gaitzaren sintomak, nolabait esateko.

Ezker abertzaletik, gaitza sendatu nahian gabiltza, ('eskubide gabezia' deritzan gaitza), minak desagertu daitezten. Batzuek diote, gaitza ETA besterik ez dela, eta kito. Beste batzuek gaitza sendatzeko -eskubide gabezia-, sintomak, minak desagertarazi behar ditugula (ezker abertzaletik eragiten direnak), eta

orduak gorputz sendoz eta osatuz aurre egingo diogula denok batera gure herriko gaitzari.

Gorputz honetan gaixotasuna denok pairatzen dugu, baina denok gara min emaille eta min hartzaile. Batzuk ETAk ekintza bat egiten duen aldiro, ziztu bizian ateratzen dira esanez: horra Anoetako proposa-

mena! Berdin kale borrokarekin.

Ez pentsa ateratzen direnik esaten: ETAK urte eta piko darama inor hil gabe, edo kale borroka asko gutxitu da. Eta esanez gero, ematen du zirikatzeke esaten dutela: gaitasun operatibo falta, indar polizialen lanaren ondorioa, 'gizartearen' presioa... Gainera, handitu ere handitzen dituzte ekintzok hildakoaren faltan. Gordina? Bai. Baina, gezurra?

Tira hori ere ez da okerreina. Gu ohituta gaude hedabide-mintzaleku-foro gehienetan

filmeko gaiztoak gu garela entzuten, eta ondorioz urratsak geuk eman behar ditugula.

Gu gaiztoenak, mutur-muturrekoak, espainol/frantses estatuak txarrak eta erdian 'onak'. Logikoki guk lehenengo fitxa mugitu behar dugu, ondoren estatuak eta onak, hobetik gabeko gizakiek, lortuko dute azkenean bi aurkako poloak birtutezko erdialdera erakartzea.

Indarkeria desagertzea eskatzen bada, ez da eskatzen indarkeria guztia, esan nahi dute ezker abertzaletik sortzen dena bakarrik. Hori joko litzateke gugandik gatazka konpontzeko urrats gisa. Normala da. Eta haien urratsak? Presoak/iheslariak etxeratzea, 'legalizazioak', tortura desagertaraztea, Lakuako hirukoak inkomunikazioa (=tortura) ez erabiltzea galdeketeran, 18/98 gelditzea...

Guk beti daukagu proposamen bat, beti gara argiak, beti gaude negoziatzeko prest, zergatik? Bada, batzuentzat biolento hutsak bagara ere, sentimenduak dauzkagulako: negar egiten dugulako lagun torturatuagatik, hutsunea sumatu 700 eta (auskalo zenbat artikulu argitaratzen denerako) herriko presoengatik, eta ezina ia 3.000 eta (auskalo zenbat artikulu argitaratzen denerako) iheslariengatik.

Arabarrak, naparrak, lapurtarrak, bizkaitarrak, xiberutarrak eta gipuzkoarrak gara. Ez gara Ibarretxeren 'la sociedad vasca'. Gure herriak bere ostasunean behar ditu konponbideak, ez 3 probintziak bakarrik. Indarkeria alde guztietatik atera behar da eta mahaian utzi, eta gu prest gaude mahai horretan esertzeko. Eta azkenik: euskal gatazka denok mahaian esertzean konponduko da, ez Ibarretxek gehiengoa lortuta. Azken batean zer dio Ibarretxe planak gatazkaren minez eta zer proposatu konpontzeko? Lasai ez duzu irakurri beharrik, nik esango dizut: e-z-e-r e-z. (Hori bai, baskongadoa bazara 'hobeto' bizi zaitezke, batez ere karneta badaukazu).

Ez dugu ez guk ez beste inork gehiago sufritzerik nahi.

toleranteak

❖ Gerardo Luzuriaga, mendizalea



2002ko martxoan Nafarroa eta Araba arteko muga dagoen Kodes mendikateko Kostalera gailurrean Gasteizen bizi garen nafar (Biloria, Gastiain, Nazar, Azuelo, Kabredo, Maraño), arabar (Urbisu, Kanpezu) eta gasteiztarrez osatu mendizale talde batek postontzi bat jarri genuen honako leloarekin: "Bi isurialde, herri bat".

Buzoiak 30 zentrimetoko altuera baino gehiago ez eduki arren, porlana, harea eta ura Kanpezutik ezpel, pago eta sasiek ezkututako bidezidorretik hogeita bost lagunek igo genituen. Hamarretakoa Joar, Gorbeia, Lokiz, Urbasa, Aizkorri, Monjardin, Jurramendi, Pirinioak, Demandaren eta Moncayoren mendikatea ikusiz eta infernuko soinuak lagundurik egin genuen.

Kostalera mendia Araba eta Nafarroaren arteko muga kokatua izan arren inoiz ez da izan oztopo sortzailea, bi herri batu dituen ibilbide naturala izan baita. Areago, betidanik pasagunerik garrantzitsuena izanda, bi haranen arteko harremanak estu-estuki mantendu dituen lotura izan da.

2003 martxoan basati batzuek postontzia apurtu eta gailurretik behera bota zuten. Urte berean aipatutako mendizale taldekook ondatutako postontzia txukundu eta berriz ere jarri genuen. Egun horretan eguraldia lagun Nazaretik tontorreraino abiatu ginen.

Orain dela hiru hilabete betiko toleranteek erauzi dute... Ea lortzen dugun postontzia aurkitzea mendi tontor honetan berriro eta betiko jartzeko.

Zer traba egin zezakeen 30 zentimetroko buzoi paregabeak? Eguzkilore distiratsuak, frontoi txiki batek, postontziak berak, eta arrano beltzak?

42 gazte epaiturik

42 gazte epaituak izan dira otsailean Audientzia Nazionalean, Jarrai-Haika-Segiren aurkako sumariopean, Euskal Herriko gazteen problematika ezberdinei alternatibak eskaintzeagatik. Oraingoan kalera atera gara kaleko jendeak gai honen inguruan uste duena jasotzera:

- 1.-Nola ikusten duzu Jarrai-Haika-Segiren kontrako epaiketa?
- 2.-Euskal Herriko gazteriak antolatzeke beharrik al du?
- 3.-Zeintzuk dira epaituak, gazteak ala ideia politikoak?

Lina Martinez, Etxekoandrea

1. Antzerkia bezala. Telebistan, irratan ikusi eta entzun dudaren arabera iruzur bat iruditu zait. Epailaren jokaerak patetikoak iruditzen zaizkit.

2. Bai. Euskal Herriko gazteriak denetarako antolatu beharra dauka, lokal bat izateko, jarduerak gauzatzeko...

3. Argi daukat ideia politiko batzuk epaitzen ari direla, Euskal Herriko jendearen ideia politikoak hain zuzen



David Muñoz, Valentzia aldeko gizarte arloko militantea

1. Ekintza politikoak kriminalizatzeko estrategia barruan kokatzen da epaiketa hau. Gaur egungo gizarte gaien gaineko pasibitatea dela eta antolatzen diren gutxiak delituzko ekintzat jo nahi dituzte, nahiz eta erabat legitimo eta legezkoak izan.

2. Erabat ziur nago baietz. Kanpora begira Euskal Herriko gizarte oso antolatua dagoen ideia zabaltzen da. Nik kontrakoa deritzot, hau da, memento hauetan gero eta beharrezkoagoa dela gizarte antolakuntza.

3. Eredu sozio-politiko bat da epaitzen ari direna, ideologia bat hain zuzen ere.



Joxe Maria Arnal, irakaslea

1. Euskal Herriko jendearen aurkako mendekua da. Orain gazte hauek dira, lehenago beste batzuk izan diren bezala.

2. Duda barik. Munduko gazteria osoa bezalaxe.

3. Ideia politiko eta sozialak.



◆Txabi Arnal Gil

ZENTROA

Berandu nabilen arren, Zaramaga aldeko "hiri" berri horretaz idatzi nahi dut. Pasa den astera arte ez nuen bisitatua, eta aitortu behar dut guztiz harriturik utzi ninduela. Atea zeharkatu bezain pronto burua lainotu zitzaidan. Bazter guztiak jendez gainezka ikusiz, Gasteizko erdialdea zentrorra aldatua zela pentsatu nuen. Eta, egia esan, ez nenbilen oker. Ondoren, edozein egoeratik probetxua atera behar dela uste duten horietariko bat naizenez, etorkizunerako planak egin nizkion txunditurik ninduen hiriari. Osoagoa izateko hainbat gauza hobetzea otu zitzaidan. Lagun eta tabernaz jositako tradizio handiko kale bat erantsi beharko litzaioke, Kutxi bezalako kale bat, hain zuzen. Eta ez hori bakarrik, gameluren bat eramatea ere pentsatu nuen. Larrialdietarako, badakizue. Asmo hobezinak arrapaladan zetozkidan burura. Eta hementxe ospatuko bagenu Zeledonon jaitsiera?, galdetu nion nire buruari. Leku zabala badago, eta, gainera, eguraldiak beti lagunduko digu. Eguraldia. Eguraldiaren gainean pentsatu nuen, gero urtaroez, eguzkiaz, hotzaz, euriaz, eguraldia iragartzeaz, eguraldiaren iragarleaz... Pikutara eguraldia! Nori axola zaio eguraldia babesa ziurtaturik egonik? Gero eta lainotuago neukan burua, gero eta lodiagoak pentsamenduak. Zentroaren eragina sena irensten ari zitzaidan. Kalera atera nintzen, aire freskoaren bila. Nire onera itzuli nintzen berehala, hala ere dar-dar nengoen. Larriturik, taxi bati deitu eta alde zaharrerako bidea hartu nuen. Autoaren babesean arnasa lasaitu zitzaidan. Atzeruntz begiratu nuen orduan. Zentroaren aurpegi ilunak irribarre gaizto bat eskaini zidan. Gero zera entzun nion: itzuliko zara, nahitaez, itzuliko zara!!

alberto
iñurrategi

gasteizen APIRILAREN 8an:

"GURE HIMALAYA"

alberto iñurategi

**GEUREKIN
MENDIRA
TALDEAREN 10.
URTEURRENEKO
OSPAKIZUNA DELA**

ETA, APIRILAREN 8AN

GASTEIZEN IZANGO DA

ALBERTO IÑURRATEGI PUNTAKO

MENDIZALE EUSKALDUNA ETA

INTERNAZIONALA. LUIS DE

AJURIA ARETOAN

ARRATSALDEKO 20.00ETAN

"GURE HIMALAYA"

HITZALDIA IZANGO DA IKUSGAI.

ARETXABALETAKOAK AZALDU

DUENEZ, "GURE HIMALAYA"K

1990ETIK 1998RA

HIMALAYAN EGIN GENITUEN

ESPEDIZIOAK JASOTZEN DITU.

FELIX ETA BION PROIEKTUAK

IZAN ZIRELAKO IPINI DIOT

HALAKO IZENA: GURE

HIMALAYA. HIMALAYA,

HIMALAYAKO HERRI ETA ORO

HAR HIMALAYISMOARI

BURUZKO GOGOETA DA".

MENDIAK POZTASUN HANDIAK

EKARRI DIZKIO, BAINA "ESAN


GABE DOA" ZEIN IZAN DEN

EKARRITAKO TRISTEZIARIK

HANDIENA... FELIXEN

OROIMENEZ ERE, ELKARRIZKETA

HAU.



**NOIZ ETA NOLA HASI ZINEN MENDIA EGITEN,
ZERK BULTZATUTA?**

Ez zen Ama Birjinaren agerpenik izan mendian hasi behar nuela esateko. Gainontzeko mendizaleak bezala inguruak bultzatuta eman nituen lehen urratsak: ikastolatik mendira egiten genituen irteerak, lagunak, gurasoak... Hala ere, 87ko abenduan Pirinioetara lehen irteera egin nuen, Poset mendira, eta negu egoeran egindako igoera hark erabat harrapatu ninduen, mendiaren



jaiotze data:

1968-11-03

jaioterria:

Aretxabaleta

zaletasunak:

"Mendiak aukera zabala eskaintzen du. Alpinismoa, kirol eskalada, izotz eskalada, eskia, mendiko bizikleta... Mendiarekin zerikusirik ez duen zaletasun gutxi daukat. Zaletzeko probatu eta ibili egin behar da eta egunaren 24 orduak muga dira".

iñurrategi

beste ikuspegi bat eman zidan.

NOLA GOGORATZEN DITUZU ZURE HASTAPENAK MENDIAN ETA NOLA BALORATZEN DITUZU BIZI IZANDAKO ESPERIENZIAK EGUN?

Orain ez bezala, baliabide gutxiarekin, baina oso bizi gogoratzen ditut. Irteera txikiena ere abentura handi bat bezala bizi genuen. Beste ezereen gainetik eskalada eta mendia genuela.

Urte hauetan guztietan bizi izandakoak asko aberastu nau esperientzian eta lagun mailan. Pribilegiatua sentitzen

naiz; nahi izan dudana egin eta gainera hartatik bizi ahal izan dut.

PENTSATZEN AL ZENUEN MENDIZALE OSPETSUEN ARTEAN EGONGO ZELA ZURE IZENA?

Ez. Pentsatzen hasita igoera hau edo bestea egitera iritsiko nintzen pasatuko zitzaidan burutik. Ezaguna izateak baditu bere alde onak, baina oso arriskutsua iruditzen zait fama gosez ibiltzea.

NOLA DEFINITUKO ZENUKE ZURE BURUA? NOLAKOA DA ALBERTO IÑURRATEGI?

Erantzun zintzoa, ezagutzen nauen

beste norbaitek eman beharko luke eta ez nik neuk.

14 ZORTZIMILA LORTU DITUEN ALPINISTA GAZTEENA ZARA, ZER DIOTSU TITULU HORREK? NOLA SENTITZEN ZARA?

Egiten zaion erabilerak lotsa ematen dit. Mendiko kontuez ezer ez dakienarentzako helmuga dena mendizalearentzat bitxikeria besterik ez da.

MENDIA GAZI-GOXOA DELA DIOTE DAKITENEK, HALA ETA GUZTIZ ERE, BENETAN GUSTUKO DUTENEK EZIN ETSI BERE ERAKARGARRITASUNAZ.





Felix Iñurrategi

> **ZERGATIK JARRAITU ARRISKUA HORTXE DAGOEN ARREN?**

Bizia al da arriskurik gabeko bizia? Kardiograma planoak besteko beldurra ematen dit emoziorik gabeko bizitzak.

ALDIZ, INOIZ AIPATU DUZU TONTORRERA HELDU NAHIAK EROTASUN KUTSUA ERE BADUELA...

Nekean hartzen dugu atseden, ibili aldrebesetan gozatzen dugu beti helburu ederrago baten asmoz. Aste osoa lanean eman eta gero asteburuan lo, telebista ikusi, azalera handiko merkatal zentrora joan eta futbol partida ikustea normala bada, mendizalearen ibilia ezin esan oso normala denik.

ZEIN DA ORAIN ARTE MENDIAK EMAN DIZUN POZTASUN HANDIENA?

Poztasunak asko dira, ezin dut bakar bat bereiztu hainbeste urtetako ibilbidean. Esango nuke ibilbidea bera dela gustura sentiarazten nauena.

ZEINTZUK DIRA AZKEN BOLADAN EGIN DITUZUN IRTEERAK?

Azken bi urteak oso lasai hartu ditut.

2003an arrakasta gutxiko ahalegina egin genuen Ama Dablam-eko ipar ertzera, eta 2004an Gasherbrum III eta IV genituela helburu Gasherbrum III igo genuen.

ZERTAN ZABILTZA EGUN?

Gure Himalaya proiektzioa egiten ibili naiz azken hilabeteetan, entrenamendu eta hurrengo mendi irteerako prestaketa lanekin batera.

ZEINTZUK DIRA ZURE ETORKIZUNEN ASMOAK EDO EGITASMOAK?

Oraindik definitu gabeko asmoetan gabiltza, baina hasiak gara aukera desberdinak aztertzen. Ia seguru udaran Pakistanera joango gara.

NOIZ ARTE IKUSIKO DUGU ALBERTO IÑURRATEGI ESPEDIZIO HANDIKO MENDIAK GARAITZEN? (EPERIK EDO ASMORIK LAN HAU BERTAN BEHERA UZTEKO?)

Ez daukat urte edo egun jakinik uzteko, oraindik gustura nabil eta fisikoki ere moldatzen naiz, hala ere, honetan jarraitzeko ez dut etorkizun handirik ikusten eta hasi beharko nuke lur hartzea nola egin pentsatzen.

IBILBIDEA. 14 zortzimila

Makalu (8.463 m.).

1991-09-30

Everest (8.848 m.).

1992-09-25

K-2 (8.611 m.).

1994-05-26

Cho Oyu (8.201 m.).

1995-09-11

Lhotse (8.516 m.).

1995-09-27

Kangchenjunga (8.586 m.).

1996-05-06

Shisha Pangma (8.046 m.).

1996-10-11

Broak Peak (8.047 m.).

1997-07-13

Dhaulagiri (8.167m.).

1998-05-22

Nanga Parmat (8.125 m.).

1999-06-29

Manaslu (8.630 m.).

2000-04-25

Gasherbrum II (8.035m.).

2000-07-28

Gasherbrum I edo Hidden Peak (8.068 m.).

2001-07-08

Annapurna (8.091 m.).

2002-05-16

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"


Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



Christina Von Bremen

alemaniar euskalduna Gasteizen

JAIOTZEZ HANBURGOTIK GERTU DAGOEN HERRIXKA BATEKOA DA CHRISTINA. 34 URTE DITU. DUELA ZAZPI URTE ETORRI ZEN GASTEIZA BIZITZERA, EGUN BERE SENARRA DENA HEMENGOA BAITA. ALEMANIAN EZAGUTU ZUEN BERA, FAGORREN LAN EGITEN ZUENEAN, ETA HAREKIN GURE HERRIRA ETORTZEA ERABAKI ZUEN. SENARRA EUSKALDUNA IZAKI, GEURE HIZKUNTZA IKASTEARI EGIN ZION SEGITUAN CHRISTINAK, ETA AISE ASKO IKASI DU, GAINERA. EGUN IKAN DABIL, ZAZPIGARREN URRATSEAN. EDERKI MOLDATZEN DA EUSKARAZ: "OSO HIZKUNTZA POLITA DA, HITZ EGITEA EZ DA HAIN ZAILA, BAI ORDEA, ONGI HITZ EGITEA", DIOSKU. GURE HIRIA ERE IZUGARRI GUSTATZEN ZAIO, GEHIENBAT ALDE ZAHARRA ETA BERTAKO GIROA. ALAIA DA, IRIBARRETSUA OSO. "IREKIA ETA KURIOSOA NAIZ, UNE ORO EZAGUTZEKO ETA IKASTEKO GRINA DUEN HORIETAKOA", DIO.



- BIZIORIK?
Bidaiatzea.
- BERTUTERIK?
Alaia izatea.
- ZER ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?
Injustiziak.
- GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEA EZAGUTZEN AL DITUZU?
Ez.
- EGUNKARI BAT.
Hemengoak ez zaizkit gehiegi gustatzen. Alemaniako Der Spiegel aldizkaria nahiago.
- TELEBISTA SAIORIK?
Debateak eta pelikulak gustuko ditut bereziki.
- PELIKULA BAT.
Noche en la tierra (Gaua lurran).
- JAKI GUSTUKORIK.
Tarta alemaniarra.
- BELDURRIK?
Hau da hau galdera sakona!!... Biolentziari.
- OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?
Edozein herrialdetara, eta denbora luzez baldin bada hobeto. Jendearekin egoteko, nola bizi diren ikusteko...
- NORA EZ ZINATEKE JOANGO?
Ez zait bururatzen...
- LIBURU BAT?
Buf!! Ez dakit... asko irakurtzen dut eta... hamaika daude. Bat esatearren, 'La insupportable levedad del ser'.
- KOLORE BAT?
Denak laket ditut.
- GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?
Ahotsa.
- MUSIKA TALDERIK GOGOKOENA?
Unearen arabera musika estilo bat... Agian, Jarabe de Palo.
- EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?
Bai.
- ZER ESKATZEN DU HERRIAK?
Erabakitzeko askatasuna.
- AMETS BAT?
Guztiontzako lana egotea.
- BOTA DIZUTEN AZKEN LOREA?
Kar, kar... ez dut gogoratzen... betikoak.
- NEGAR EGIN DUZUN AZKEN ALDIA?
Duela hilabete, senarraren amona hil zenean.
- ETA AZKEN BARREA?
Oraintxe bertan!!



Unai Yus

"Maila profesionalen berandu hasi arren indartsu sentitzen naiz"

josune veleaz de mendizabal
arg.: edorta sanz

UNAI YUS KEREJETA GASTEIZARRA PORTUGALETIK ETORRI BERRIA DA (GP INTERNACIONAL COSTA AZUL) ETA DAGOENENKOGI BEGIAPIRILEAN IZANGO DEN PARIS-RUBAIX LASTERKETAN JARRITA DITU, "AMETSA BAITUT", DIO 31 URTEKO TXIRRINDULARIAK. SASOI ONEAN DABIL GAZTEA, BAITA GOGOTSU ERE. ZIKLO-KROSEAN URTARRILEAN ESKURATU ZUEN ESPAINIAKO TXAPELDUNAREN TITULUA ADIBIDE BAT BETERIK EZ DA.

Unai Yusek betidanik izan du kirola gustuko. "Indibidualak taldekoak bainoago", aitortzen du. Bere aita ere kirolzalea izanik, zortzi urterekin hartu zuen lehendabiziko aldiz Unai bere aitaren txirrindua. "Urtero egin ohi zen ziklo-kroseko lasterketa bat eta urte horretan ni animatu nintzen korritzera. Gainontzeko umeak ondo prestatuta zihoazen, nik aldiz, praka bakeroak eta alkandora jantzita eta kasko gabe korritu nuen. Hala eta guztiz ere, bigarren gelditu nintzen eta ordutik aukera izatekotan lasterketarik ez dut galdu", dio gasteiztarrek.

Bederatzi urterekin hasi Iturribero Txirrindularitza Eskolan, baina Yusek berak aitortzen duenez, "18 urte izan arte ez nuen serio hartu bizikleta; ordura arte lagunekin parranda egiten nuen eta oporretan joaten nintzen". 1999 urtean hasi zen gaztea profesionalean. "25 urte nituela hasi nintzen maila profesionalen, baina berandu hasi arren indartsu

sentitzen naiz bai fisiko zein psikologikoki, eta burua oso garrantzitsua da kirol honetan", azpimarratu du. Portugalen bost urte eman eta egun Bouygues Telecom (La Boulangeré zena) taldeko kidea da Unai Yus.

ZIKLO-KROSEKO ESPAINIAKO TXAPELKETA ESKURATU BERRI DUZU URTARRILEAN BUSTURIAN. HALA ERE, ZUK ERREPIDEKO TXIRRINDULARITZA EGITEN DUZU. SORPRESA ERAMAN AL ZENUEN?

Sei urte neramatzan ziklo-kros egin gabe eta aurten Frantzia aldeko taldera joan naizenez, entrenamendu eta prestakuntza gisa ziklo-krosa egin nezakeela aipatu zuten. Espainiako Txapelketara aurkeztu nintzenean ez neukan helburu zehatzik; bezperan zirkuitua ikustera joan nintzenean iruditu zitzaidan polita zela eta agian irabaziko nuela eta horrela izan zen.

DAVID SECO ZEN FAVORITO ETA HALA ERE ZU IZAN ZINEN IRABAZLE...

Nik argi neukan irabaz nezakeela.

David oso ondo ezagutzen dut, batera korritu izan dugu eta. Badakit bere maila azken urte hauetan oso ona izan dela, baina azken bi urteotan, arazo pertsonalak direla-medio, zarraturik bezala ibili da. Horretaz gain, lasterketa Busturian izateak eragin zion, etxean korritzen baitzuen eta honek kriston presioa ekarri zion.

HAU AL DA IRABAZI DITUZUN SARIEN ARTEAN INPORTANTEENETARIKOA?

Beno, komunikabideei begira behintzat bai, Espainiako txapelketa bat irabaztea, nahiz eta kaniketan izan, beti da garrantzitsua. Halere, nire lehenengo garaipena profesionaletan gogoratzen dut bereziki, hau da, 2001ean Portugal egunean, ekainaren 10ean, Oporto-Lisboa klasikoa irabazi nuenekoa. Europako lasterketa luzeena irabazi nuen, guztira 340 km. Han, Portugalen bost urte eman eta gero irabazten nuen lehen lasterketa profesionala zen... lehen amodioa bezala hori ez da ahazten, ezta?, edo behintzat hori diote.

ESPAINIAKO TXAPELKETA ZIKLO-KROSEKO ZURE AZKEN LASTERKETA IZANGO ZELA ESAN ZENUEN, BAINA HALA ERE MUNDIALETARA ERE AURKEZTU ZINEN. ZERGATIK?

Hori txapelketa irabazi baino lehen esan nuen, baina behin Espainiakoa irabazten duzula ezinbestekoa da Mundialera joatea. Azken hau esperientzia bezala ondo dago baina 44. geratu nintzen. Espainia txirrindularitzan ona bada ere eskas dabil ziklo-krosean, belgikarrak baitira modalitate honetan nagusi. Mundialera oso ondo prestatuta joan beharra dagoela argi dago.

ZER DA UNAI YUSEK ORAIN ARTE ERDIETSI DUENA?

Nik gehien gustuko dudana da nire lanbide bihurtzea lortu dudala. Aurten da zazpigarren urtea profesionaletan nagoela eta ekonomikoki ere segurtasun handia ematen dizu honek. Bestetik, lanbide honi esker gaur egun bost hizkuntza dakizkit: euskara eta gaztelaraz txikitatik, ingelesa ikasi nuen, portugesa Portugalen egon nintzen bost urte horietan eta frantsesa azken bi urte hauetan. Iazko urtarilean apenas nekien eta aurten berriz nahiko ondo defendatzen naiz frantsesez.

ETA ZER DU YUSEK LORTZEKE?

Garaipen bezala munduko kopako froga bat irabaztea gustatuko litzaidake. Paris-Rubaix daukat buruan sartuta, hau lasterketa ezberdina da eta iaz lehendabizi korritu nuen, baita bukatu

DI-DA

Txirrindularitza ez den kirol bat?
Denak.

Eta praktikatzen duzuna:

ilota, mendira joatea, eta nire pasioa den eskiatzea nahiz eta profesionaletan nagoenetik nahiko zaila daukadan.

Ziklo-krosa edo errepideko txirrindularitza?

Ziklo-krosa betidanik dut gustuko eta pentsatzen dut errepidekoan baino maila hobea ematen dudala. Halere maila ekonomikoan ziklo-krosak ez du dirurik ematen.

Sari bat:

Oporto-Lisboa, 2001ekoa.

Amets bat:

Paris-Rubaix.

Etorkizuneko asmo bat:

ahal den urte gehien txirrindularitzan mantentzea, maila onean, noski.

Oroitzapen bat:

Josebak (Beloki) esan zidanean ea La Boulangeré taldera berarekin joango nintzen. Hor hausnartu nuen eta burura etorri zitzaizkidan egindako garaipen txiki guztiak. Mementorik politena.

Liburu bat:

"El perfume", eta behin baino gehiagotan bajoiaz nagoenean irakurtzen dudana "Sin noticias de Wolf", Eduardo Mendozarena.

Film bat:

"La vida es bella".

Musika talde bat:

Denetarik dut gustuko, mementoaren arabera, klasikotik Rammstein taldera arte. Talde bat bereziki, Metallica.

ere (ez omen da lehenbiziko urtean bukatzen). Apirilaren 10ean da eta hain ondo prestatu nahi dut, aurten ez dudala Euskal Herriko Itzulia egingo... pentsa ezazu, hortaz, noraino daukadan barneratuta! Horretaz gain, txirrindularitzan bukatzea gustatuko litzaidake, jendeak txirrindulari ona izan nintzela esatea, ez garaipen asko irabazteagatik baizik eta nire lana ondo egin izanagatik...





aurrera emakume futbol taldea irudimenarekin, AURRERA eginez

edurne begiristain

Gero eta ohikoagoa da futboleak jokatzen duten emakumeak ikustea. Akaso, ohikoena ez dena da futbolariak modu iradokitzaile eta sexyan ikustea. Aurrera futbol taldeko neskek, ordea, lortu dute futbola eta sentsualitatea uztartzea. Zertarako eta egutegi bat egiteko. Argazki polit eta dibertigarritz egindako egutegiak arrakasta itzela izan du jendearen artean. Emakumeen futbolak arrakasta bera izatea nahiko lukete jokalariek, eta horretarako jo eta ke dabilta egunero euren taldean jokatzen.

Aurrera emakume futbol taldea duela sei urte sortu zen. 14 eta 33 urte bitarteko hemezortzi neskek osatutako taldea da. Futboleak trebeak izateaz gainera, ezin uka Aurrerako neskei irudimena falta zaienik. Ezta ausardia puntu bat ere! Izan ere, urte hasieran egutegi berezi samarra argitaratu zuten, hasiera batean Klubak zituen behar ekonomikoei aurre egiteko asmoz dirua lortzeko. Ainhoa Manero taldeko jolaskariari otu zitzaion dirua lortzeko moduren bat edo beste lortu behar zela, eta zer egokiago, taldeko nesken argazkiez hornitutako egutegi bat ateratzea baino. Pentsatu, taldekideak konbentzitu eta egin. Egia esateko, taldekideak konbentzitzea ez zen lan makala izan, eta pausoa emateko prest agertu zirenerako Klubak dagoeneko konponduta zituen diru arazoak. Hala eta guztiz ere, ideia aurrera eramatea erabaki zuten Aurrerako neskek, polita eta dibertigarria izan zitekeelakoan.

Eta hala izan da. Azken emaitza ezin hobea da eta. Zazpi argazki iradokitzaile, sentsual eta dibertigarriez hornitutako egutegia salgai atera zuten urtarilean. Argazkietan, Aurrerako jokalariek arropa gutxiarekin agertzen dira, ia ezer erakutsi gabe, baina ikusten ez dena estilo handiz iradokituz. Barruko arroparekin, kulerokien,



SARTU
Zure arropa eta ainetakoa
www.sartudenda.com
Kubxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA
TABERNA
Equilibrio, astoiak, ostia, ostia
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN PRANZESKO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 68 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tinoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

titiaik estaltzen dituzten taldeko bufanda koloretsuekin... ageri dira, aldageletan eta zelaian bertan.

Esperientzia dibertigarria izan da, Manerok azaldu digunez. "Ederki pasa genuen, segituan animatu ginen eta denbora gutxian egin zizkiguten argazkiak", diosku. Hasieran lotsa apur bat pasa zutela aitortzen digu, baina hori bigarren argazkitik aurrera desagertu zela dio. Emaizarekin oso gustura geratu dira Aurrerako neskek, nahiz eta baliabide nahiko gutxiarekin egin duten egutegia, taldeko jokalarik baten lagunak egin baitizkie argazkiak.

Arrakasta itzela izan du, halaber, jendearen artean. Izan ere, hilabate eskas batean agortu egin dira egutegi guztiak. Lortutako dirua jokalarien artean banatuko dute. Erdietsitako arrakasta ikusita, datorren urtera begira beste bat ateratzeko animatu dituzte dagoeneko, eta zenbait egunkarik eta argazkilarik ere laguntza eskaini egin diete. Ez dute baztertzeko 2006. urterako ere halako egutegi bitxiren bat ateratzea, baina oraindik ez dute erabakirik hartu.

Emakumeen futbola suspertzeko ahalegina

Argi dago Aurrerako neskek egutegia kaleratzeko hartutako erabakiarekin, dirua biltzeko pauso bat emateaz gainera, bestelako helburu bat ere lortu dutela, zeharka bada ere: emakumezkoen futbola egon badagoela gogoraztea. Izan ere, emakumeek praktikatzeko duten futbolak ez du sekula arrakasta handirik izan gizartearen. Hala aitortzen digu Manerok berak. Araban, gainera, Euskal Herriko gainontzeko herrialdeekin alderatuta, atzerago daudela esan daiteke. Erakundearen laguntza falta da, besteak beste, emakumeen futbolak gure herrialdean duen arazo nagusienetakoa.

Baina erakundearen laguntza ez ezik, gizarteak duen pentsaerak ere zerikusi zuzena dauka emakumeen futbolaren egoerarekin. "Jendeak pentsaera matxista du oraindik, eta ez du baneraturik emakumezkoen futbola gizonen parekoa izan daitekeela", dio Manerok. Izan ere, gaineratzen duenez, emakumeek praktikatzeko duten futbola gizonenak baino "interesgarriagoa eta sutsuagoa" izan daiteke. "Gizonen futbola zeharo aspergarria da,

emakumeena, ordea, liluragarria izan daiteke", dio. Era berean, teknika aldetik emakumeek gizonen baino gaitasun handiagoa dutela iritziz dio Manerok.

Epailen jarrera ere "matxismo" horren isla dela azaldu digu Aurrera-ko jokalariek. "Haiek ere pentsaera hori dute, uste dute normala dela nesken artean ostikoka egotea, borrokan aritzea. Haatik, gizonen partida batean ez lukete onartuko". Publizitateari dagokionean ere, hedabideek interes eskasa erakusten dute, eta apenas eskaintzen diote tarterik emakumeen futbolari, diosku.

Nolanahi ere, etorkizunari begira ez dute itxaropena galtzen neska hauek. Apurka-apurka indarra hartzen doan kirola dela kontuan hartuta, gero eta garrantzi gehiago hartzen joango dela iritzien diote. "Ez du sekula gizonen futbolak bezainbeste garrantzi izango, baina agian egunen batean....", adierazi du Manerok, itxaropentsu. Egunean batean helburu hori lortuko duten inork ez daki, baina bien bitartean emakumeen futbolaz gozatzeko aukera dugu arabar guztiok, kalitatezko futbol onaz gozatzeko aukera, gainera.

Zorte on neskek!!



Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

> GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

ABERRI EGUNA 1934 GASTEIZ liburua



ROMAN BERRIOZABAL, egilea:

"ARABA bada, eta izan delako IZANGO DA"

edurne begiristain

argazkiak: edorta sanz

1934ko Aberri Eguna berezia zen, euskal abertzaletasunaren indarra erakutsi nahi baitzen Arabako lurretan. Horixe Aberri Eguna 1934 Gasteiz liburua irakurrita atera daitekeen ondorio nagusienetakoa. Roman Berriozabal euskal filologo eta maisuak idatzitako liburuak Euskal Herrian ospatu hirugarren Aberri Eguna du ardatz. Egun horren gaineko datu zehatz ugari bildu ditu Berriozabalek, dokumentazio lan mardularen ostean.

Aberri Eguna 1934 Gasteiz liburuan datu zehatz nimiñoena ere topa daiteke. Garai hartan Araban zegoen familia jeltzalearen zerrenda osatua, Aberri Egunaren antolaketa lanaren nondik norakoak, egitaraua, bildutako jendetza, Gasteiza hurbildutako lagunaren joan-etorriaren kalamidadeak, Mendizorrotzako zelaietan dantza egin zuten dantzarien zerrenda luzea, bertan eskainitako mitinak, argazkiak... "Azken batean Gasteizen ospatutako Aberri Egunaren kronika zehatza da, datuz ongi hornituta, betiere gertatu zenaren arrastotik eginda". Hala diosku Berriozabalek berak, liburua idazterakoan erabilitako estiloaz galdetzen diogunean.

Bildutako informazioan sakondu aitzin, Arabako hiriburuan ospatutako jaiaren garrantzia azpimarratu du Berriozabalek. Azaldu digunez, Aberri Eguna Gasteizen egitea "ez zen doakoa izan", izan ere, garai hartan une oso latzak bizi ziren Arabako hiriburuan. Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Autonomia Estatutuaren erreferendumean arabar asko zeharo kontra agertu ziren, batik bat tradizionalistak eta karlistak. "Horrela, Arabaren euskalduntasuna zalantzan jarri zen, eta herrialdea Estatututik atera

nahi zuten, Espainiako dinamikan sartzeko", azaldu digu. Hortaz, Aberri Egun hura Arabaren euskalduntasuna eta abertzaletasuna aldarrikatze aldera egin zen, duda baik; kontuan hartu behar da, hala ere, EAJK bazuela indarra herrialde osoan, urte horretan bigarren indar politikoa baitzen, nahiz eta erakundeetan zuen ordezkaritza hutsaren hurrengoa izan, Berriozabalen esanetan.

Liburuaren edukian murgilduta, hauetxek topatu ditugun daturik esanguratsuenak:

JENDETZA

Jeltzaleen iturrien arabera, 50.000 lagun izan ziren Aberri Egun hartan. Hain jendetsua izateak ere gasteiztar asko harritu egin zituen. "Arabaren mobilizazio handia egon zen, lortutako idazkietan ikusten da gainera ahalegin handia egin zela herrietatik etor zitezen", diosku Berriozabalek. Besteak beste, Arabako Errioxatik dantzari asko joan ziren Mendizorrotzan egin zen dantzaldira, baina nagusiki Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik joan zen jendea. Izugarrizko jendetza egon zenez, tradizionalistek, esaterako, "inbasiotzat" hartu zuten.



Aberri Eguneko ekitaldien berri emanaz prestatutako egitarau nagusian datorren Gasteizko mapa



Euzko Gaztediko abesbatzaren ekitaldia Errepublikako plazako kioskoan. Inguruan milaka lagun adi-adi

EGUNKARIETAKO ISLA

Egunkari gehienek artikulu alai samarrak argitaratu zituzten biharamunean. Baina bazen "mutu" geratu zenik, eta kontrako iritzirik bota zuenik ere. "Tradizionalisten aldeko egunkariak estu hartu zituzten abertzaleak, inbasiotzat hartu zutelarik". Hain izan zen latza egoera, Gasteizko alkateak lasaitasun mezua helarazteko bandoa atera behar izan zuela.

ERAGOZPENAK

Espainiako gobernazio ministerioak Aberri Eguna bertan behera uzteko mehatxua bota zuen, eta EAJk Madrilgo Gorteetan zituen ordezkariak gestioak egin behar izan zituzten jaialdia "zibismoz" egingo zela ziurtatzeko. Garai zailak ziren, beraz, eta abertzale eta sozialisten arteko liskarrak bazeuden: "Garai hartan pistolak zebiltzan luze-zabal", dio Berriozabalek.

ANEKDOTAK

Zenbait anekdota eta bitxikeria ere bildu ditu egileak liburuan. Hala, bizi zen egoera larria eta tentsio giroa islatzeko, Mendizorrotzako

jaialdira joandako ezpata dantzariet gertatutakoa aipatzen du. Ezpata dantzariak Gasteizko erdialdetik oinez zihoazen Mendizorrotzako bidean, bertan desfiletxoa egin behar zuten eta, eta poliziek ezpatak zorroetan sartuta eramateko esan zieten. Bestelako bitxikeriarik bada: jaialdia hasi zenean, Mendizorrotzaren gainetik hegazkin txiki bat bueltaka ibili zen. Euskadi markako produktuak iragarri nahi, eta propaganda egiteko abioneta txiki bat erabili zuen lagun batek.

HITZALDIAK

Besteak beste, Telesforo Monzon eta Jose Antonio Agirre bezalako politikariak eskaini zituzten mitinak Mendizorrotzan burututako jaialdian. Mezuak arabar abertzaleei zuzenduta zeuden neurri handi batean. Hala, Berriozabalek gogora ekartzen duen moduan, arabarren euskalduntasuna zalantzan jartzen eta mehatxuak botatzen zituztenei erantzun zieten aipatu politikariak. Azken batean, liburuan jasotzen diren lekukotza horien bitartez mezu argia helarazi nahi izan die egileak irakurleei: "Araba badela, izan dela eta izan delako izango dela".



Andre Maria Zuriaren plaza jendez gainezka

ROMAN BERRIOZABAL AZPITARTE

Elorrion jaioa, baina Gasteizen bizi da. Prestakuntzaz maisua, euskal filologian lizentziatua da eta Eusko Jaurilaritzaren egoitza nagusian egiten du lan. Lekuan lekuko gai historikoak ditu gustuko. Horren adierazle dira argitaratutako bi ikerlan: Balentin Berriotxoaren eta Durangoko eta Elorriko abertzaleen gainean egindakoak.

Une honetan beste lan interesgarri bat du esku artean: abertzaletasunak Gasteizen izan duen presentzia aztertzen dihardu. Orain arte, 1911. urtera arteko ikerketa eta azterketa egin du. Oso datu interesgarriak topatu dituela diosku: esaterako, 1910. urtearen bueltan seme-alabak euskaraz bataiatu nahi zituzten gurasoei elizetan jartzen zizkieten trabak itzelak zirela esaten digu. Informazio hori lortzeko elizaz eliza ibili da bataio liburua begiratzeko.

ORREAGA-BILBO

MARTXOAREN 10etik 20ra

www.korrika.org

ni ere bai!

IBILBIDEA 2005

NAFARROA>ZUBEROA>NAFARRO BEHEREA>
LAPURDI>GIPUZKOA>ARABA>BIZKAIA

AEK ETA KORRIKA

Korrika Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatutako ekitaldia da. Euskal Herri osoan egiten den euskararen aldeko ekitaldi bakarra. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu. Izan ere, euskal gizartea berpizkunde berri baten atarian jarri behar dugun honetan euskalduntze alfabetatzeak oro har eta AEK-k dituen gutxienezko beharrianak estaltzea ezinbestekoa da.

AEK onura publikoko kultur elkarteak helduen euskalduntze alfabetatzean dihardu. Euskal Herri osoan 100etik gora ikasgutan milaka matrikula egiten ditu.

Baina hori ez da dena, korrika ez da ekitaldi bat besterik gabe. 1980an Oñatitik Bilbora Euskal Herria zeharkatu zuen korrika 1 antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuenetakoa da korrika. Ordutik 13 korrika eta ia 25 urte igaro dira, baina korrikaren arrakastak bere horretan dirau.

Izan ere, 10 egunez, gau eta egun, gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa erraldoia ez da egunero ikusten. 2.100 kilometro baino gehiago korrituz, adin eta mota guztietako milaka pertsonak hartzen du parte. korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko gizarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egiten duen apustuaren tamaina islatzen du.

Baina, aldi berean, Euskal Herriko gizartea astintzen duen gertakari bilakatu da bi urterik behin egiten den korrika. Batetik bestera lasterketan parte hartzen duen jende kopuruak gora egiten du. korrika ekitaldiaren antolaketan milaka lagun aritzen da, herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen artean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi da. Era berean, ezin aipatu gabe utzi komunikabideetan duen oihartzuna gero eta handiago dela.

OMENDUAK

ANDOLIN EGUZKITZA
EUSKALDUN BERRIAK

korrika araban

KORRIKA DENDA

Denda Kutxi kalean dago 81. zenbakian.

Ordutegia: Ostegunetan, 18:30-21:30 / Ostiralean, 20:30-22:00 / Larunbatetan, 12:00-15:00. Dendan aurtengo Korrika materiala eta Aek-ko materiala aurkituko duzue eta tonbola ere badago. Zenbaki guztiek saria daukate.

KORRIKA KULTURALA

Martxoaren 4an bukatuko den egitarau kultural zabala.

KORRIKA TXIKIA

Martxoaren 10ean izango da. 15:00etan AIXKIRIA euskaltegitik aterako da (Jose Mardones, 8) eta Gasteiz zeharkatu ondoren 16:30ean Plaza Berrira iritsiko da. Plaza Berrian gauza asko egongo dira: kantak, Baskoniako saskiak, kale animazioa, askaria...


IBILBIDEA

Korrika martxoaren 10ean hasiko da Orreagan eta martxoaren 20an bukatuko da Bilbon.

Arabara sartuko da Landatik

Euskal Herria euskalduntzen

ni ere bai!



ka...

14!

martxoaren 17an, gaueko 12ak aldera. Pasako dituen herriak:

Marieta, Ozaeta, Hermua, Larrea, Axpuru, Narbaxa, Goroda, Galarreta, Zaldondo, Araia, Egilatz, Agurain, Zuhatsu-Donemiliaga, Dallo, Dulantzi, Erentxun, Egileta, Azazeta, Birgaragoien, Birgarabarren, Maeztu, Atauri, Antoñana, Kanpezu, Genevilla, Cabrero, Maraño, Angostina, Bernedo, Obekuri, Baxauri, Albaita, Pedruzo, Armentiaiko Bentak, Trebiñu, Añastro, Argantzun, Tuyo, Villaluenga, Lasierra, Nuvilla, Anuzita, Mandaita, Olabarri, Langraitz, Mendoza, Estarrona, Astegietia, Gasteiz (18:40), Abetxuku, Arangiz, Mendiguren, Etxabarri-Dibiña, Apodaka, Letona, Zaitegi, Murgia, Zarate, Manurga, Gopegi, Larrinoa, Murua, Etxaguen, Gorostiza, Ollerietia eta Legutiotik Bizkaira igaroko da goizaldeko 3ak aldera.

Martxoaren 20an berriro Arabara sartuko da Aretatik gaueko 12:30ak aldera. Audio, Amurrio, Arespalditza, Ibaguen herrietatik pasako da eta Artziniegatik Bizkaira joango da goizaldeko 4ak aldera.

GASTEIZ. Martxoak 17

Gasteiza 18:34an sartuko da eta Abetxukutik aterako da 22:30ean.

IBILBIDEA:

- | | | |
|--|--|---|
| > Oto hiribidea | > Lasarteko atea | > Ramon y Cajal |
| > Tomas Zumarraga
dohatsuaren kalea | > Salbatierrabide | > Senda ibilbidea |
| > Mexiko | > Araba <i>ni ere bai!</i> | > Manuel Iradier |
| > Jose Atxotegi | > Agirre Miramon | > Arka plaza |
| > Bulebar Euskal Herria | > Nieves Cano | > Dato |
| > Donostia | > Heraclio Fournier | > Posta kalea |
| > Gabriel Zelaia | > Triana kalea | > Andre Maria Zuria |
| > Wellintong Dukearen
kalea | > Herrandarren kalea | > Mateo Moraza |
| > Blas Otero | > Jose Mardones | > Lehendakari kalea |
| > Donostia | > Olagibel | > San Frantzisko |
| > Baiona | > Judimendi hiribidea | Xabierrekoaren kalea |
| > Forondako atea | > Arana | > Aiztogile |
| > Latinoamerika plaza | > Herrandarren kalea | > Txikita |
| > Honduras kalea | > Nafarroako errege-
erregina | > Ahate iturri plaza |
| > Gasteiz hiribidea | > Fermin Lasuen | > Jesusen Zerbitzarien
fundatzailearen plaza |
| > Tomas Zumarraga
dohatsuaren kalea | > Martin Salinas | > Aldabe plaza |
| > Serafin Ajuria kalea | > Errege-erregin
katolikoen kalea | > Zerkabarren |
| > Adriano VI.a | > Arriagako atea | > Tomas Zumarraga
dohatsuaren kalea |
| > Abendaño kalea | > Loiola kalea | > Domingo Beltran |
| > Diaz de Olano | > Bilbo plaza | > Pascual de Otalararen
plaza |
| > Gasteiz hiribidea | > Frantzia kalea | > Arriaga atea |
| > Gaztelako atea | > Bake kalea | > Agirrelanda |
| > Fontetxa gaztelua | > Independentzia | > Artapadura |
| > Etxezaharra kalea | > Araba generala | > Abetxuku: Presa
kalea - Cristo - |
| > Ezkibelgo gaztelua | > Becerro Bengoa | Txarrakea - Tiloak - |
| > Gaztelu atea | > Monseñor Cadena y
Eleta apezpikuaren
kalea | Nogales |
| > Elvira Zulueta kalea | | |

- 1) Zein da zure ipuin-kontakizunaren gaia?
- 2) Idazten jartzen zarenean, euskaraz egin ohi duzu?
- 3) Irabazteak idazten jarraitzera animatzen du.
Noiz izango da idatziko duzun hurrengo ipuina edo kontakizuna?
- 4) Zure idazle edo liburu faboritoena?

etorkiz IDAZLEA

saioa fdz de arangiz
edorta sanz

14-18 URTEKO BITARTEKOEN SAILA

1. saria: **MAIALEN BERASATEGI, 'EGUNEN MENPE'**

Txikitatik idazteko zaletasuna hartu zuen 15 urteko Maialenek, Ikasbidea ikastolan DBHko 4. maila ikasten diharduen gazteak.

1. Bakarrik dagoen agure batek bere bakardadea eta oroitzapenak kontatzen ditu.
2. Bietan idatzi ohi dut.
3. Egia esan, oraintxe bertan ez nabil idazten, etorri falta dela eta. Izan ere, burura zerbait etorri arte ez dut idazten.
4. Zaila da esatea. Irakurri dudaz azkena, Manuel Mugica Lainezen "El Escarabajo", asko gustatu zitzaidan.



2. saria: **GARAZI AGIRRE, 'UME HELDU BATENTZAKO GUTUNAK'**

Bizitzari buruz idaztea da Koldo Mitxelena institutuan ikasten duen 17 urteko Garazik atsegin duena. Txikitatik idazten hasi, egun institutuko talde batean ari da.

1. Irakasle heldu eta bizitzeko gogo handia duen ikasle baten arteko abentura kontatu dut nire ipuinean. Irakasleak ikaslearen izaera du gustuko eta maitemintzen da berarekin bere bizitza pizten duelako.
2. Bietan egiten dut, euskaraz zein gazteleraz.
3. Hemendik gutxira gaztelaniazko lehiaketa batera aurkeztuko dut lan bat eta ondoren, institutu mailako beste batera.
4. Asko dauzkat... adibidez, poesia asko gustatzen zait, Becquer esaterako. Bestetik, Carlos Ruiz Zafon ere gustuko dut, azkena izan ezik bere liburu guztiak irakurri ditut.

3. saria: **IÑIGO VICTOR VILLAPUN, 'HIRU KOLORETAKO GERRA'**

Iñigo, Miguel de Unamuno institutuan ikasten duen gaztea dugu. 16 urteko mutil honek ikastolarako ipuinak idazten eman zituen bere lehen urratsak literatura munduan.

1. Gerra Zibilaren garaian, Euskal Herriko herri batean gertatutakoa kontatzen dut, baina ez ikuspuntu politiko batetik, ume txiki baten ikuspegitik baizik.
2. Gehienetan bai, D ereduan ikasten dudanez euskaraz idazteko ohitura dut.
3. Oraindik ez naiz hasi, azterketak direla eta. Hala ere, beste literatura lehiaketa baten berri entzun dut eta zerbait aurkeztea pentsatu dut.
4. Lehiaketarako idatzi nuen kontakizuna prestatzean, Manuel Rivas idazleaz pentsatu nuen, bere ipuinak asko gustatzen zaizkidalako. Euskarazko literaturari dagokionez, Bernardo Atxaga esango nuke.



uneko euskal

K?

GAZTEAK, 14-25 URTE ETA ZALETASUN BAT, IDAZTEA. GAUEKOAK-EK URTERO ANTOLATU OHI DUEN GAZTEENTZAKO IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN XI. LEHIAKETAREN EUSKARAZKO MODALITATEKO IRABAZLE SUERTATU ZIRENAK EKARRI DITUGU GURERA. IAZ BAINO MAILA HOBEA EGON ZELA ESAN ZUTEN EPAIMAHAIKOEK... EUSKARA MAILAK GASTEIZEN ETA ARABAN GORA EGITEN DIHARDUEN SEINALE???!! HORRATX ETORKIZUNEAN IDAZLEAK IZAN LITEZKEEN GAZTE HAUEN ADIERAZPENAK:

19-25 URTE BITARTEKOEN SAILA

1. saria: KATIXA AGIRRE, 'ADULTERIOGILE KONBENTZITUA'

Idaztea afizioa ez ezik, ogibide ere bilakatu da 23 urteko gasteiztarrantzat, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi ondoren, Madrilera abiatu baitzen gidoigintza egitera.

1) Istoria bromatzen da, hau da, emakume batek, bere senarraz aspertuta, beste gizon batekin abentura bat izatea erabakitzen du, betiere, modu ludiko batean. Izan ere, azkenean konturatzen da ez dela hori benetan behar zuena.

2) Bai, beti euskaraz idatzi dut, hala ere egun, lana dela eta, gaztelaraz ere idazten dut.

3) Etengabe idatzi ohi dut, izan ere, egia da sari bat irabazten dudanean gogo handiz hartzen dudala eta indarrez eusten diodala berriro idazteari.

4) Zaila da bakarra aipatzea. Azken boladan, idazle iparramerrikarrak irakurtzeko ohitura hartu dut, Paul Auster, esaterako.



2. saria: MAITE MARTIARENA, 'AMETSAK AMETS'

21 urte, getariarra eta Kazetaritzako ikaslea: "Betidanik, ipuinak zein niri gertatutako gauzak idatzi ohi ditut".

1. Ospitale psikiatriko batean dagoen gazte batek ez ditu oso ondo ulertzen bertan egotearen arrazoiak, ematen dizkioten azalpenak ez dituelako guztiz sinesten. Gazteak etengabe pentsatzen du bere lagun batekin, berarekin hitz egiteko gogo handia duelako.

2. Beti euskaraz, nire hizkuntza baita.

3. Horrela da. Aurreneko gauza da idazten duzunarekin pozik egotea eta gainera saria ematen badizute, ikusten duzu ez duzula hain gaizki egiten... Memento honetan, ipuin baten proiektuarekin nabil, baina beti idazten dut inspirazioa etortzen zaidanean.

4. Jon Arretxe gustatzen zait asko, "Oroituz" liburua, esaterako.



3. saria: XUBEROA SALANUEVA, 'BEGI BERDEAK'

Xuberoa Iruñeko 22 urteko neska dugu, Ikus-entzunezko Komunikazioa egin ostean, Gasteiza Haur Hezkuntzako Magisteritza ikastera etorri dena, hain zuzen. 14 urtetik aurrera serio idazten hasi eta geroztik, olerkia zein prosa landu ditu.

1. Bizitza monotonoa daraman tipo batek, bere mementoko gogoeta txikia egiten ari denean, bat-batean kalean, emakume batekin egiten du topo gauean...

2. Lehen beti euskaraz egiten nuen. Orain, ordea, erdi bana. Adibidez, olerkiak euskaraz zein gaztelaraz idatzi ohi ditut.

3. Hala da. Orain dela gutxi, esaterako, etxeko lanen banaketa gaitzat zuen lehiaketara aurkeztu dut lan bat. Bai, proiektuak baditut!

4. Lucia Etxebarria gustatzen zait. Liburuei dagokienez... "Kutxidazu bidea, Ixabel" oso gustura irakurri nuen.



Europako itun konstituzionalari euskaltzaleok ezezkoa emateko agiria

1. Hizkuntz eskubideak ez dira oinarritzko giza eskubideak.

Europako Itun Konstituzionalean herritarrei hainbat eskubide aitortzen zaizkie eta horien artean badira oinarritzko giza eskubide zenbait. Hizkuntz eskubideak ez dira jasotzen.

2. Eskubide ekonomikoek hizkuntz eskubideek baino garrantzi handiagoa dute.

Itun Konstituzionalak jaso egiten ditu jabetza pribaturako eskubidea edota enpresa-eskubidea; ez ordea, hizkuntz eskubidea.

3. Hizkuntz komunitateen inguruko aipurik ez dago.

Estatuen Europa eraikitzeke tresna da Itun Konstituzionala. Europaren benetako aniztasunari ez zaio erreparatzen. Hizkuntz komunitatearen erreferentziarik ez dago.

4. Geure hizkuntzak zokoratu egiten ditu.

Europako berezko hizkuntz komunitate asko desagerrarazi egiten ditu Europako mapatik, bai eta eraiki nahi duten Europa berri horretatik ere.

5. Europako herritarren arteko bereizkeria eragingo du.

Geure hizkuntzetako hiztunoi debekatu egingo zaigu Batasuneko administrazioekin, Arartekoarekin edota bestelako erakundeekin zerbitzua geure hizkuntzan eskatzea eta jasotzea.

6. Europar hiritar gaitu, soilik, Ituneko hizkuntza batean jardunez gero. Ez bestela.

Europako hiritartasuna ezartzean, Europako hiritarrei ituneko hizkuntza batean jarduteko eskubidea aitortzen die eta hizkuntza horretan soilik jardun dezakete europar hiritarrek.

7. Europaz kanpoko hizkuntzen status eta tratu bera izango dugu.

Munduko beste hizkuntzen mailan jarriko dituzte gure hizkuntzak.

8. Geure hizkuntzak ez dira inon egongo presente.

Zuzendaritzako proiektuetan, herritarrei begirako dokumentazioan, web guneetan... Ministroen eta Estatu Buruen Kontseiluan, komisarioen prentsaurrekoetan... geure hizkuntzek ez dute lekurik izan.

9. Ordezkaritza politikoei ezin izango dute berezko hizkuntza erabili.

Bruselako parlamentuak ez die aukerarik emango gure ordezkariari beren hizkuntza erabiltzeko eta berezko ez duten hizkuntza bati eutsi beharko diote une oro.

10. Ituna geure hizkuntzetara itzultzeko aukerara mugatuko dute sustapen guztia.

Hori izango da geure hizkuntzei eskainiko zaien bakarra, Itun Konstituzionalaren itzulpena eta beti ere itzulpen hori ematea hizkuntz komunitate hauek

menderatzen dituzten estatuen esku egongo da.

11. Geure hizkuntzen normalizazioa galgatu du.

Izan ere, Europa mailako araudiaren mende egongo gara eta horren arabera, esaterako, tokiko gobernuak ezin izango dute behartu etiketak geure hizkuntzetan idaztera.

12. Ez dituzte abian jarriko geure hizkuntzen garapenerako eta sustapenerako proiektuak.

Orain arte aniztasunean bildurik leloari loturik bideratu diren ekimen ia guztiak: Sokrates, Leonardo... estatuetoa hizkuntza ofizialen sustapenerako izan dira.

13. Estatuetoa hizkuntzen arteko lehia sustatuko dute eta geure hizkuntzak joko horretatik at utziko dituzte.

Lan-hizkuntzen inguruko lehiari hasiera ematen diotenean, geure hizkuntzak are ikusezina izango dira.

14. Hizkuntzen arteko hierarkia nabarmenagoa eragingo du.

Hierarkia horren arabera geure hizkuntzak azken mailan egongo dira.

Gaiaren inguruko informazio gehiago:

www.erabili.com

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUJA (ARABA) • 945 430 073

MIKO

Izozkiak

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

bar • restaurante • albéniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



Arabako
Bertsolari
Txapelketa

2005

FINALA

➤ Apirilaren 9an, larunbata, GASTEIZen,
17:30etan, Jesus Guridi Auditorioan

2005

Otsailaren 19an eman zitzaion hasiera 2005.eko Arabako bertsolari txapelketa nagusari. Araiako Andra Mari aretoak jaso zuen aurtengo txapelketaren lehen kanporaketa, arratsaldeko zazpitan hain zuzen ere. Zortzi izan ziren bertan nor baino nor aritu ziren bertsolariak: Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre aramaioarrak, Jagoba Apaolaza gasteiztarra, Zigor Enbeita Izarrakoa, Lander Meaza eta Amaia Altube amurrioarrak, Markel Bekares Zuiako Ametzagakoa eta Felipe Zelaieta Gasteiztik.

Saioak ez zuen aparteko sorpresarik eskaini; Zigor Enbeita eta Andere Arriolabengoa nagusitu baitziren

gainontzeko sei bertsolarien gainetik. Hau izan zen Naroa Sasieta gai emaileak jarri zien lana protokoloak agintzen dituen bi agurrez gain: Ofizioka zortziko nagusian eta zortziko txikian bina bertso neurri bakoitzean, eta bakarka zortziko txikian lau oinak emanda bertso bat eta hitza emanda zortziko nagusian beste bertso bat.

Saioan zehar ez zen besteen gainetik nabarmen geratu zen saiorik entzun. Nahiko saio orekatua izan zen; Enbeita eta Arriolabengoarengandik gehiago espero zitekeela esan daiteke, baina gainontzeko seiek uste baina maila politagoa eskaini zuten.

Behin bertso puntuagarri guztiak abestu ondoren hau izan zen

epaimahaiak eman zuen puntuazioa: lehenengo Zigor Enbeita 119 punturekin, bigarren Andere Arriolabengoa 116 punturekin, hirugarren eta laugarren postuetan berdinketa bat eman zen, Lander Meazak eta Iker Agirrek 102.5 puntuna lortu baitzituzten, bosgarren Amaia Altube 102 punturekin, seigarren Felipe Zelaieta 100.5 punturekin, zazpigarren Jagoba Apaolaza 95 punturekin eta zortzigarren Markel Bekares 93 punturekin.

Hurrengo kanporaketa otsailaren 26an izan zen Lapuebla Labarkan. Bi saio hauetan puntuaziorik altuena lortzen duten zazpi bertsolariak pasako dira final aurretara.

LIZARRALDE SOINYA 945 226 977
TXALAPARTA, S.L. GASTEIZ
SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
EREMU HANDIEN SOINUZTAPENA

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

EL BAR Kutxi
eguneko menua

DIBUtec
Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopioak
Kamiseten Estampaketak
Jazkarprint
Impresio / Inprimategia
Edozein inprimoketa mota.
• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"




ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiaturia.

Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

MARTXOA. AGENDA

GEU

GASTEZKO IRAKURLE KLUBA

martxoak 17, osteguna

Pello Lizarralde, Sargori, Pamiela 1994

Hikaatenoan (Pintore kalea, 13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:

Oscar Wilde, Fidel izan beharraz, Ibaizabal 2000

Apirilak 21, osteguna

GEUREKIN MENDIRA

martxoaren 13an

MUELA (1055 m)

(*goizekoa)

Arduraduna: Iñaki-945146296

Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN 10. URTEURRENA

apirilak 8-10

IKUS. 32-33. orrialdeak

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VII IRTEERA

apirilaren 3an

SAN TIRSO

Irteera: goizeko 8:45ean BUS GELTOKIAN. AUTOBUSEZ Informazioa: 945222153 (GEU elkarte - Josune)

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA Merkataritzan eta zerbitzugintzan martxoak 16-17

OÑATIN

Matrikula: martxoaren 4ra arte

Antolatzailea: Debagoineko

Mankomunitatea (639214068)

www.debagoiena.net

KORRIKA 14

MARTXOAREN 17an GASTEIZEN

Oto hibidetik sartuko da 18:34an / Abetxukutik aterako 22:30ean

ARABARA LANDATIK SARTUKO DA (24:00ak aldera)

MARTXOAREN 20an BERRIZ ERE ARABAN (ARETA-ARTZINIEGA, 24:30ak aldera)

KULTUR ERROTA

martxoak 15

MAIRU ANTZERKI TALDEA:

"Krabelinak uharteetan"

20.30ean, PARRAL tabernan

ARABAKO BERTSO TXAPELKETA

martxoak 12, 19: finalerdiak

apirilak 8: finala

KORRIKA GALA

martxoak 4

20:30etik aurrera Azkena aretoan

ANTZERKIA: BIHAR TALDEA (txotxongiloak)

martxoak 5

"Adarbakar urdina"

Falerina lorategian, 18:30ean

martxoak 11

Zigoitiko zentro soziokulturalean, 18:00etan

KONTZERTUA: JABIER MUGURUZA

martxoak 3

Falerina lorategian (Montehermoso), 20:00etan

HAURRENTZAKO DANTZA: TIRA HARIARI

martxoak 6

Aguraingo Harresi aretoan, 17:00etan Sarrera: 3 euro

"AFRIKA, BESTELAKO BEGIRADA ETA AHOTSAK JARDUNALDIAK"

(ekaina bitartera)

martxoan

Hitzaldia: Giza-laguntzak Afrikan

(gastelera)

Hikaateno-n (Pintore kalea 13-behekoa.

945288192 / gasteiz@hikaateneo.org)

PARRAL taberna

1. Antzerkia: Euskabaret (Katar beltz kabaret club)

8. Antzerkia: Free pelota teatro (Las historias de Rusó)

15. Antzerkia: Mairu (Krabelinak uharteetan). Geu: Kultur errota.

22. Musika: The Brontës.

asteartero. 8.30ean

GOGORATU

martxoak 3

martxoak 8

ZINEA EUSKARAZ

Hileko lehen larunbatean,

12: 00etan

Antolatzailea: Euskharan elkarte (Amaia zentroan-Aranbizkarra)

ERAKUSKETA: Arabako Campuseko IX. Arte-Lehiaketa

martxoaren 1etik 11ra

Arabako Artxibo Historiko Probintzian

(astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara)

ERAKUSKETA. Pintura.

Pilar Lopez de Munain.

Luis de Ajuria aretoan.

martxoaren 13ra arte

DANTZA & MUSIKA: Algara taldea

martxoak 18

dantza, trikitilariak, txistulariak, alboka...

Zigoitiko zentro soziokulturalean, 20:00etan

ERAKUSKETA. Zeramika

Euskal keramikagile garaikideak. Zuloa espazioan.

martxoaren 25era arte

PEDRO DE ATARRABIA XVII. LITERATURA SARIKETA-2005

Kontakizun laburrak

Epea: irailak 16

Antolatzailea: Atarrabiako Udala

KULTURika 05

urtarriletik abendura bitartera

martxoan: Udaberriko jaia

maiatzean: Antzerkia

ekaina: Ikaperia (ikasturte amaierako jaia)

urria: Ikasturte hasierako jaia

azaroa: Zinea euskaraz

abendua: Neguko jaia

1876

1 874ko otsaila eta maiatzaren artean "Somorrostro" izeneko hiru gatazka ikaragarri gertatu ziren Bilbo inguruetan. Izan ere, karlisten armadak bizkaitar hiriburua sitiatu eta, mendebaldetik, espainiar ejerzitoa alderdi hura bereganatzen saiatu baitzen, horren ondorioz bien indarrak hagitz era bortitzean talka eginez. Eta kasu, guda "moderno" batez ari baikara (irakur Garin ofizialaren testigantza), zeren eta itsasotik ere itsasontziek (ingelesek, prefosta) karlisten lubakiak masiboki bonbardatu baitzituzten. Hots, milaka eta milaka lagun bertan hil zen, haien artean buruzagi erranguratsuenak, erraite baterako Olló, Rada edota Andetxaga.

Karlistak garaiturik, Serrano eta Concha generalen ejerzito itzela Bilbon sartu zen maiatzaren bian, foruzaleen itxaropena deuseztuz. Serrano generala biziki omendu zuten Madrilen, eta Conchari ahalik eta azkarren gerra amaitzeko erran zioten, hego Euskal Herrian ari ziren espainiar soldaduen aginte nagusia jasoz.

Bilbo ingurukoarena eginikoan, laster aukeratu zuen Concha generalak zein izanen zen eman beharreko hurrengo urratsa: Lizarra, karlisten hiriburuaren konkistatzea. Horretarako, baina, Lizarrerria osoa makurrarazi behar zuen. Hitz batez, karlistak Bilbon saiaturikoa berak eginen zuen Nafarroako alderdi hartan. Logroñon finkatu eta handik Lerin, Larraga, Artaxoa nahiz Tafallan koartelak soldaduz bete zituen, eskualdearen menperatzeko. Karlistak, azaldu beharrik ez dago, Lizarrerrian prestatu ziren, armada, ospitaleak, biltegiak, bolborategiak, baliabideak, tresneria, mota guzietako

laguntzak estrategikoki kokatuz.

Dena hagitz era azkarrean burutu zen, bi hilabete baino tarte laburragoan, alegia. Hamaika burruka taktikoetan aritu ondoren, hondarrean, 1874ko ekainaren 25 eta 27 bitartez Lizarratik iparralderantz den Abartzutza herriko lurretan, baita ingurukoetan ere, jakina, gatazka izugarria gauzatu zen, Nafarroa Garaiko "Somorrostro" modukoa deitzen ahal duguna. Eta aipaturiko ekainaren 27an, han bertan, iskanbilan, karlistek Concha generala tiroz hil zuten. Telegrama bat heldu zen Madrileraino: "General en Jefe Interino a Ministro Guerra. Ejército rechazado. General en Jefe muerto. Pérdidas sensibles. Me ocupo levantar la moral de las tropas esperando mi sustitución. Estoy muy enfermo". Espainiar ejerzitoa Ebro alderat joan zen. Karlistek erresistentziari eutsi zioten, eta Iruñea zein Irun sitiatu zuten.

Lizarra karlisten estatuaren hiriburua zen. Berehala, Lizarratik hurbil, Lakar herriko lurretan finkaturiko bertze espainiar ejerzitoa desegin zuten. Karlistek, ustekabeko erasoan, mila soldadu hil eta milaka preso hartu zuten. Historiak diotenaren arabera, Madrileko tropen porrota betean Alfonso XIIIa bera ere harrapatzekotan aritu ziren. Beranduago, halere, pausoz pauso nagusituko zitzairen.

Horrela, 1876ko otsailaren 27an karlisten erregeak Luzaide zeharkatu eta ipar Euskal Herrian erdietsi zuen babesa. Guda galdurik, espainiar ejerzitoak Lizarra konkistaturik, hamabortz mila karlistek armak eman ez eta, haiek ere, muga pasa zuten, gehienak Ameriketarat joaiteko. Urte bereko uztailaren 21ean foruak



desagerrarazi zituzten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian zentsura nahiz salbuespen egoera ofiziala bezain zorrotza 1879ko azaroaren 4a arte ezarriz.

1876ko uztailaren 21a: **Foruen amaiera?**

1876ko otsailean azken guda karlista amaitu zen, espainiar soldaduek batailoi karlistak garaitu, zokoratu eta karlisten erregea, on Karlosek, Gipuzkoako hiriburu zaharra zen Tolosatik Nafarroako Baztanerantz alde egin baitzuen, hil horren hondar egunean Arnegi nafar herriaren bitartez ipar Euskal Herrian sartuz.

1876ko uztailaren 21ean espainiar lehen errepublika ordezkatu zuen "restauracion" delakoaren protagonistek, espainiar erregea zen Alfonso XIIak



Mateo Moraza

(1874-1885) eta Canovas del Castillo espainiar gobernu buruak (1876ko espainiar konstituzioaren arduraduna) Gipuzkoa, Bizkaia nahiz Arabako foruen amaiera sinatu zuten.

Izan ere, Bergarako Itunarekin harreman zuzena zuen 1839ko legeari nahikoa loturik zegoen apirilaren 6ko erret agindu batek foruen gaia aipatu zuen, jorratu beharreko bidea prestatuz. Agindu horren bidez Nafarroa Garaia bere horretan geratzen zen, hots, 1841eko legearekin, baina hego Euskal Herriko bertze hiru herrialdeak arrisku bizioan zeudela ohartarazten zen. Hori zela medio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako batzarreak apirilan zehar elkartu eta maiatzeko bilera bat eskatu zioten Canovas del Castillo nagusiari.

Honela, maiatzaren 1ean bilera eman zen, baina euskal ordezkariak ez zuten erdietsi Canovasen laguntza edota

hausnarketa, gerra bukaturikoan irtenbiderik gabe Madrildik zetorkiena berretsi baizik. Ekainean Joaquin Gonzalez Floriz espainiar diputatuak proposamen hau plazaratu zuen: *"Las leyes políticas, administrativas y económicas que rigen en las demás provincias de España regirán en lo sucesivo en las de Guipúzcoa, Vizcaya y Alava en el plazo máximo de dos años"*. Canovasek berak, halere, aurkako bozka eman zuen, politikoki hura oraindik gehiegikeria zelakoan eta, agi denez, espainiar balizko erradikalen aitzinean zintzoaren planta egin zuen, moderatuaren mozorroaren bidez euskal foruen aurka zuen benetako asmoa izkutatu.

Canovasek lehenagoko planari atxiki zion, dena den, eta ekainean bertan gaia espainiar biltzarrerat heldu zen. Euskal ordezkariak uholdea ekiditen saiatu ziren, hainbat bilera burutu eta "La Paz" izeneko foruen aldeko egunkaria (1876ko maiatzaren 7tik 1878ko abuztuaren 21 arte) Madrilen bertan argitaratu zuten, baina, antza denez, prentsan ezarritako zentsura ikaragarria zen eta, Martin Ugaldek errana, egunkari hura bera ere desagerrarazi zuten.

Espainiar kongresuan, bertzeak bertze eta orduko nazioarteko komunikabideek jaso ahal izan zuten, Mateo Benigno Moraza arabarra foruen alde maisuki aritu zen uztailaren 13tik 19 arte, euskal zein arabar askatasuna hiltzen ari zirelakoan. Alferrik, zeren eta erabakia alde aurretik hartua baitzegoen, handik egun gutirat, uztailaren 21ean, espainiar legebiltzarak foruak desagerrarazi zituen legea onartuz.

Lege horren eragin zuzenak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian: kintak, zerrendak eta soldadutza, zergak, justizia eta testu foralen berridazketa Madrilen eran. Perez Arregiren erranetan, Castelar zenak horrela adierazi omen zuen:

"Algo grande muere hoy en España". Izan ere, aldaketaren neurriak ikusirik, karlisten aurkako euskal liberalak ere haserretu ziren, Manterola kasu. Orduan jaio ziren, bertzalde, "conciertos económicos" izenekoak, foruen azken hondarraren gisa.

"La política" egunkaria

Martin Ugalde ikerlariak azaldu zuenez (1982), Antonio Cánovas del Castillo zenak egunkari bat izan zuen bidelagun, hain zuzen ere bere ideia politikoak defendatzeko zituen komunikabidea, hau da, "La Política" izeneko.

Bada, eta orduko "La Unión Vasco Navarra" argitalpenak salatu zuelarik, 1880. urtean eta egunkari hartan ondorengo lerroak nabarmendu ziren: *"Para convencer a los vascongados de una manera práctica que la nación española jamás consentiría el restablecimiento de las instituciones forales en las provincias vascas, son necesarias medidas del siguiente tenor: unidad nacional; ejército de ocupación mientras fuere necesario; comunicación constante entre los habitantes de esas provincias y los demás del Reino; arreglo del clero vascongado; obligación de todos los habitantes de aprender el castellano; obligación en los sacerdotes de usar esta lengua en el púlpito y en el confesionario, y reforma de las leyes administrativas que tiendan a establecer en las Vascongadas una descentralización inconveniente para el resto del país"*.

Testuinguru historikoa, oroitaraz dezagun, hondar guda karlistaren ondorengoa zen, erran nahi baita hondamendi sozioekonomikoa eta kulturala ikaragarria zelarik, aspaldiko eskubideak eta bertako hizkuntza desagertzen ari zirenean...

Iker Nuñez, DJa

IKER NUÑEZ GARRALDA 27 URTEKO GASTEIZTARRAK 13 URTE ZITUENEAN MUSIKA ELEKTRONIKOAREKIKO SENTITU ZUEN ERAKARGARRITASUNAK, EGUN BERAK GUSTUKO DUEN MUNDUAN IZEN BAT IZATERA ERAMAN DU, DJ NUÑEZ, ALEGIA. ATZERA BEGIRATU ETA HARRITU EGITEN DA IKER, 12 URTE PASA DIRA HASTAPENETATIK ETA! EGUN MUSIKA ELEKTRONIKOAZ GAIN, ZINEMA, BIDAIAZEA, FUTBOLA, SNOWBOARD, LAGUNAK, ETA NOSKI, POTEREN BAT HARTZEA ERE BADITU GAZTEAK ZALETASUN.

ZERK ERAMAN ZINTUEN EGUN DJ LANETAN JARDUTERA?

Lagun bat areto batean hasi zen musika elektronikoa jartzen eta orduan gogoz geratu nintzen. Hainbeste erakarri ninduen, nire lehenbiziko aurrezkiekin plater eta binilo batzuk erosi eta nire lehenengo nahasketak egiten hasi nintzela. Sei urte pasa ziren eta gogoia, hainbat ideia eta musika elektronikoren ezagutza nuela ikusita, ekoizpenean lehenbiziko urratsak ematea erabaki nuen. Nire ikasketak ez zeuden zuzenki musikarekin lotuta, baina hainbat lan ekoiztu eta gero nire zigilu propioak atera nituen eta puntu horretan Enpresaritzako ikasketak (Galesen eginikoak) baliagarriak izan zitzaizkidan. **ZEIN IZAN DA ZURE ORAIN ARTEKO IBILBIDEA?**

Ene, zein azkar pasatzen den denbora! Konturatu gabe 12 urte daramatzat entzuleen aurrean musika jartzen. Gazte hasi nintzen, 15 urte nituelarik, Gasteizko New World aretoan eta hortik Dreams aretora pasa nintzen eta hau, tamalez, erre zenean Estatu espainoleko geografian aritu nintzen, baita Frantziako hegoaldean eta Los Angelesen, Hollywood-en. Egun Gasteizko People eta Nafarroako Basik aretoetan aritzen naiz (egoiliar gisa, dio), baita beste hainbat hiritan house eta techno-trance musika boloak egiten ere. Produktore lanetan aldiz, merkatuan techno-trance eta house arloko 30 disko inguru ditut eta nire hainbat lan Carl Cox-ek, batzuen

ustetan munduko dj onena, erabili izan ditu disko bildumetarako. Musika elektronikoko hainbat lan pelotazo handia izan dira Euskal Herrian. Azkenik, beste lan asko nire zigilu propioekin kaleratu ditut, IJ2 records, Standard records eta Soleado recordings, alegia. Bide batez, gustatuko litzaidake nire kide JMC, David Vio eta Kikori euren lana eta laguntza eskertzea.

MADRILEN EGON OHI ZARA. BA AL DAGO ALDERIK HAN EDO HEMEN LAN EGITEAREN ARTEAN?

Madriilen egoten naiz astean zehar duela bi urte entzunezko ikastaro bat egitera etorri nintzelako eta nire kide David ezagutu nuelako. Orduan ekoizteko eta nahasteko estudio bat sortu genuen eta hantxe dugu. Dena den, badira asteak non hemen ere geratzen naizen, ezin baita d e n a lanera

mugatu. Esan beharra dago zigilu handiak Madriilen daudela, baina musika estudioetan egiten denez eta makinekin, berdin dio non egiten duzun, benetan axola dena disko on bat egitea da. Euskal Herrian oso musika ona jartzen da, jendeak gustua eta feelinga dauka, batez ere trancerako. Madriilen edo Bartzelonan sartzen diren moda musikalak, ordea, ez dira hemen hain erraz sartzen eta urtebeteko denbora behar dute horretarako. Hemen gauza berrietara belarria egitea kostatzen zaigu eta pentsatzen dut ohituretako pertsonak garetza eta ez gaudela hiri handietan bezain irekiak eginak.

ZEINTZUK DIRA ZURE HURRENGO EGITASMOAK? AMETSIK BAI?

Ekoizpen aldetik oso pozik nago izen handiko eta oneneko zigiluekin diskoak kaleratuko ditudalako. Bestetik, hainbat lan ditut prest nire zigilu propioarekin garaian garai kaleratzen joango direnak. Nire asmoa da larunbat gauetan techno trance sesioak eskaintzen jarraitzea Gasteizko jendeari zein hurbileko tokietakoei. Beraz, badakizu People aretoan itxaroten dizuete! Ametsari dagokionez, musikaz bizitzen jarraitu ahal izatea, izugarri asetzen nau eta bihotzez egiten dut, baita nire ondoko lagunei hutsik ez egitea, beraiek laguntzen eta maite nautelako nik eurak bezala. Eskerrik asko guztiei!



IRVSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

Iñaki Arregi:

"Musika konposatzeaz bizi nahiko nuke"

MUSIKA HEZIKETA

1989-91: Jesus Guriñi Kontserbatorioan, Solfeo, Bere kabuz, Harmonia eta Orkestrazioa. 1993: Luis Aranburu Musika Eskolan, Pianoa. 1996-1998: musikaren inguruko ikastaroak (pianoaren pedagogia, entzuketak). 1998-2002: Amaya Añuak zuzenduriko Psallite-Udaberria Abesbatzan tenore.

2001-2002: Alcala Unibertsitatean, musika-espezializazioaren inguruko ikastaroak. 2001-2004: Luis Aranburu Musika Eskolan, Biola.

IBILBIDE MUSIKALA

(Laburmetraiak, dokumentalak, konponketak, partituzioak eta nahasketak)

"La avería", Carlos Moro (1998); "No abras la puerta", David Brea (1998); "Encerrado", Cristina Abecia (1999); "Soledades", Garbiñe Armentia (2001); "Bocas", La Polla Records (2001); "Looking for Chencho", Kepa Sojo (2002); "Inmigran...", Garbiñe Armentia (2002); "El corazón de las tinieblas", David Reymonde (2003); "Eskerrik asko", Ane Larrañaga (2004).



Iñaki Arregi 27 urteko gasteiztarra egun lanbidez kalitate-ikuskatzailea bada ere, bokazioz eta prestakuntzaz ere musika konposatzailea da. "Gustutuko litzaidake musika konposatzeaz bizitzea, baina egun musika konposatzailea naizela esatea astakeria da", dio irribarretsua. Umila eta aldi berean zorrotza bere buruarekin, Iñakik hainbat dokumental eta laburmetraietarako musika sortu du. Berarekin hitz egitea baino ez dago musika sortzeko duen abileziak eta ezagueraz jabetzeko.

Zinea eta irakurtzea zituela gustuko, Iñaki solfeoan hasi zen umetan eta ondoren, hamabost urterekin, pianoa ikasten hasi zen, baina ordurako gauzak konposatzen zituen jada. "Alejandro Amenabar moduko bat -dio barrezka-. Ez neukan ezaguera handirik baina gauzak egiten nituen". Gazteak onartzen duenez, "garai hartan laburmetraiak ez zeuden hain modan eta hala eta guztiz ere,

nik arlo horretarako musika egin nahi nuen, musikarekin istorio bat kontatzen baituzu...".

Pianoa eta gero biola ere ikasi zuen Iñakik eta bere hastapenak gogora ekarriz honako hau dio gazteak: "Ikastola garaian lagun batek eta biok filmen soinu bandak erosten genituen eta izugarri gozatzen genuen; gaur egun freak deritzana, alegia... sutsuak ginen". Aitormenez aitormen, Iñaki txikitzen ezagutu dutenek musikaren maitalea zenik ezin ukatu. Lekuko, dj Nuñez bera, garaiko gelakide eta egun lagun.

Juanma Bajo Ulloaren "La madre muerta" filma abiapuntua izan zen Iñakiren ibilbidean. "Bingen Mendizabalek bertan eginiko musika izugarri gustatzen zitzaidan eta txundituta ninduen. Hortaz, egun batean zoriontzeko deitu eta bide batez partitura eskatu nion. Pentagrama solte batzuk utziko zizkidala pentsatu nuen, baina nire harri durarako store guztia utzi zidan, bua! -kontatu du zoriontasunez-.

Ondoren, zenbaitetan harremana izan nuen berarekin eta handik urtebetera proposamen bat eginez deitu zidan. Madrilén Carlos Mororen "La avería" laburrerako musika muntatu behar zen eta Bingenek ezin eta nire izena eman zien. Gorenetik hasi nintzela esan daiteke. Benetan pozik egin nuen lan eta gainera oso bitartekari profesionalekin, imajinatu 'Torrente' soinuatzatzen ari ziren estudio berean ibili ginen".

Esperientziarik esperientzia, Iñaki zuzendari ezagunekin, Kepa Sojorekin adibidez, eta ez hain ezagunekin aritu da. Bere ibilbidea oparoa da eta proiektuak esku artean dituela, aurrera jarraitzea du asmo gasteiztar honek.

"Zaletasunaz gain, prestakuntza ere badaukat eta musika sekulan utziko ez dudana zerbait da", dio. Ametsen artean desiratuenetarikoa "luzemetraia baterako musika egitea" dela aitortzen du. Bide onetik doa Iñaki... baietz lortu!

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



Araba bixotzian

alfredo ibarra



Bakardade kale kantoia

zutabea

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

Arabako Iruñako Illunaz

Beti iruditu zait "Iruñea" izenaren inguruan zeredozer berezia genuela euskaldunok. Bon, eni bakarrik ez, egia erran gureaz arduratu denak behin baino gehiagotan antzeko gogoeta egin baitu. Eta ez, ez naiz esoterismo moduko aferez ari, bai zera, benetako kezka duzu irakurle, han hemenka toki izen hori jasotzen ahal baita.

Hor da, erraite baterako, denon hiriburua, Iruñea bera, gaztelaniaz mintzatzerakoan ere "Iruña" zena, paper ofizialetan "Pamplona" deitu arren. Handik ekialderantz Irunberri, duela pare bat urte haize bolada batek hondatu nahi zuen ikastolakoa. Itsasertzean, bere aldetik, Bidasoako Errepublikan, Irun dugu. Eta, egungo Langraitz alderdian, duela bi mila urteko Iruña.

Ez pentsa, horrelako toki gehiago bada, baina, nola bertzenaz, arabar Iruña delakoan pausaturen gara. Dirudienaz, bertze kasuetan bezala, populazio gune garrantzitsu bati lotu zaio izena, hiri, uri bati edo.

Bada, duela 1700 urte edo Iruña hau abiadura bizian harresitu zuten. Erromatar Inperioak zituen egiturak ahuleziak jota, presaka altxatu zuten. Bertakoek haien burua defendatzeko, uholde barbaroak medio, edota menperatzailei bertakoen matxinadaz babesteko baliogarria izanen zitzaielakoan, nork daki. Garbi dagoena da beldurra zutela, harresia eraikitzeke edozein gauzaz baliatu baitziren. Hor dira ageri, 2005ean, zutabe puxkak zeharka, hilarriak eta bertze.

Garai hartako Iruña galduan Illuna izeneko emakumearen berri ukan zuten arkeologoek hilarri bati esker. Duela urtebete lagun batzuek Illuna izena jarri zioten alaba berriari, eta eni galde egin ea izena nongoa zen edo, gustukoa baitzuten. Nik Estitxu eta Jabiren "Arabako Euskal Hotsak" liburua oparitu nien, Illuna zein orrialdetan agertzen zen azalaraziz.

Haiei ez nien erran, halere, oraindik buruan dabilkidan zalantza, hau da, ea Illuna eta bere ondorengoek harresia zutitu ala erasôtu egin zuten. Antza, horren jakitekotz urte batzuk itxaron behar izanen ditut. Euskaraz haziko den umeari begirat ari natzaio...

geurekin mendira

GEUREKIN MENDIRA, 10 URTE...

...hilerik hile, mendirik mendi, hitzez hitz...

ZORIONAK!



1995. Gasteiztik Argantzura. Lehen irteera ofiziala. 30 ibiltari



1998. Txindoki. 62 ibiltari... hura marka!!!



1997. Mugarra. 36 ibiltari



1996. Zalduondotik Arantzazura. 13 ibiltari



1999. Aumategi-Mugarriluze




2000. Vallegrull



2001. Soila. 16 ibiltari



2002. Arnaba. Hura bai elurtea eta lainoa!!!



2003. Ganekogorta



2004. Murube. 13 ibiltari



2005. Dulantz. 16 ibiltari

GEUREKIN MENDIRA taldearen X. Urteurrenaren egitaraua

Apirilaren 8an:

19:30ean. Geurekin Mendira taldearen argazki ikuskizuna, eta ondoren, GURE HIMALAYA mendi proiektzioa, ALBERTO IÑURRATEGIrekin. Ondotik, ardotxo, etorri diren ikusle guztientzat.

22:00etan. AFARIA. Izena eman beharko da, edo elkartera deituz, arratsalde (945222153) edo e-mail bat bidaliz (geuelkarte@grn.es), izen-abizen eta telefonoarekin.

Apirilaren 1a, azken eguna.

Apirilaren 10ean:

Gasteiz-Argantzu mendiz mendi:

1995ean egindako lehen irtenaldi ofizialaren errepikapena

09:00etan. -Ibilbidea: Lovaina plaza, Armendia, Zaldiaran, Busto, San Miguel, Argantzu.

Txikiteoa Argantzuko kaleetan. Jatekoa eramatea gomendatzen da.

-Itzulera: 15:30ean Gasteizen, trenez etorrita.

GEUren ekintzak

GEUREKIN MENDIRA

MARTXOAREN 13AN

MUELA

(1055 m)

(*goizekoa)

Arduraduna:
Iñaki-945146296

Irteera: goizeko
9:00etan Lovainan



GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN VII. IRTEERA

APIRILAREN 3AN

SAN TIRSO

Irteera: goizeko 8:45ean
BUS GELTOKIAN. AUTOBUSEZ
Informazioa: 945222153 (GEU elkarte - Josune)

KULTUR ERROTA

MARTXOAK 15

MAIRU ANTZERKI TALDEA:

"Krabelinak uharteetan"

20.30ean, PARRAL tabernan

"Krabelinak uharteetan" Bakarsolasean oinarritutako kafe-antzerki emanaldia da. Ikuskizun honetan, Mairu antzerki tailerreko partaideek bakarrizketen bitartez bizitzak eskaintzen dizkigun irudien kontrasteak aurkezten dizkigute: haurtzarotik heldutasunerako saltoa, ilusioak, desilusioak, ametsak, norberaren buruaren ezagutza, bizitzeko grinaren atzematea, bizitzaren estresa, gozamena... 7 bakarrizketa daude guztira. Normalean, 3-4ko multzoetan aurkeztu ohi dituzte, bakarrizketen arteko lotura bat eginez.

MARTXOAK 17

OSTEGUNA



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

Pello Lizarralde, Sargori, Pamiela 1994

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13),
20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:
Oscar Wilde, Fidel izan beharraz,
Ibaizabal 2000
Apirilaren 21a, osteguna

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es

Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

- Ordutegi guztiak: Leire. 656726701
- Arratsalde eta Gauez: Nerea. 658733934
- Asteburuak: Nagore. 945281124

IRAGARKITXOAK

• APARTAMENTUA alokatzen dut (altzariak baditu) Federico Baraibar kalean; 45m² ditu honela banatuak: logela bat, egongela, bainugela, sukaldea eta arropa zabaltzeko balkoi txikia. Gaseko berokuntza du eta igogailua ere bai.

Oso ondo zaindua dago eta bista ederrak ditu.
Tl.: 653 714 556

• Ikastolen Elkartek uztailean burutuko diren euskal, ingeles eta frantses UDALEKUETARAKO BEGIRALEAK behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea.

Izen emate epea: martxoak 11.

Non: Ikastolen Elkarteak, 94 4354340 zenbakira deituta edo www.bieikastola.net webgunean.

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege aldea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



euskarak aurrera egin dezan,

555

harpidedun

>GEU

GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA



18.euro
urte osoan

eman
zure izena:

945 22 21 53
geugaste@grn.es